

EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA KOMUNIKAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU FINKOA ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN KANPOKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK.

Indesa 2010 SLren Administrazio Kontseiluak, 2024ko irailaren 26an egindako bilkuran, sozietatearen 2025erako aurrekontuen aurreproiektua onetsi zuen. Aurrekontu horiek Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan sartzen dira. Lanpostu zerrendaren aldaketan artean, 2025eko ekitaldirako aurrekontu memorian jasotzen zen komunikazioko goi-mailako teknikari plaza bat sortzea, San Prudentzio egoitzari atxikitako arloko arduradun plaza baten amortizazioari lotuta.

2024ko abenduaren 30eko ALHAOn (147. zk.), Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Araua argitaratu zen. Foru arau horrek, besteak beste, Indesa 2010 SL sozietate publikoaren plantillaren egitura arautzen du.

Indesa 2010 SLren Administrazio Kontseiluak, 2025eko martxoaren 3an egindako bilkuran, sozietatearen lanpostu zerrendaren aldaketa onestea erabaki zuen, Komunikazioko goi-mailako teknikari lanpostu bat sortuz. Aldaketa hori San Prudentzio egoitzari atxikitako arloko arduradun plaza bat (7.EST. nomenklatura) amortizatzean justifikatzen zen.

Plaza hutsen, eta hala badagokio, sortu berri diren plazen eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, eta Indesa 2010 SL sozietatearen hitzarmenak berak onetsi zituzten lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira. Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publizitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

2025eko martxoaren 4an, komunikazioko goi-mailako teknikariaren lanpostu mugagabe baterako barne sustapeneko hautaketa prozesuaren oinarriak onetsi eta ebazpena eman zen.

Izangaiak aurkezteko epea amaitu ondoren, 2025eko martxoaren 12an, epaimahaia bildu da, eta izangairik ez dagoenez, hutsik deklaratzeko ebazpena eman da. Beraz, kanpoko deialdi publikoa egin behar da.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Onespena ematea Komunikazioko goi-mailako teknikari lanpostu finkoa kanpoko deialdi baten bidez estaltzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarri orokorreari eta espezifikoei, bai eta eranskinari ere.

BIGARRENA.- Onespena ematea kanpoko deialdiaren bidez egindako hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako plazara sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

HIRUGARRENA.- Hautaketa prozesuaren hautaketa organo gisa honako hauek izendatzea:

- **Lehendakaria:** Indesa 2010 SL enpresako Giza Baliabide eta Orientazioko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Indesa 2010 SL enpresako Finantza zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Laguntza Unitateko goi-mailako teknikaria
- **Idazkaria:** Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza Juridikoko teknikaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

Gasteiz, 2025eko martxoaren 12a

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea

KANPOKO DEIALDIAREN PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK KOMUNIKAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU FINKO BAT BETETZEKO

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. ARAU OROKORRAK:

- 1.1.- Oinarri orokor eta oinarri espezifikoko hauen xedea da hautaketa prozesua arautzeko arauak ezartzea, kanpoko deialdian, Komunikazioko goi-mailako teknikari lanpostu bat estaltzeko; hori guztia, Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostua deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritakoaren arabera.
- 1.2.- Ariketei deialdi honetan oro har ezarritakoa aplikatuko zaie. Hautaketa sistema, txanda, baldintza espezifikokoak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau partikularrak oinarri hauetan jasotzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoen arabera arautuko dira.
- 1.3.- Halaber, deialdi honen xedea da, hala badagokio, lan poltsa batez hornitzea deitutako lanposturako (Komunikazioko goi-mailako teknikaria), enpresan sor litezkeen aldi baterako beharrak betetzeko.
- 1.4.- Deitutako plazetarako ezarritako baldintzak ezingo dira inola ere bete nahitaezko probak eta baztertzeko probak gainditu ez dituzten izangaien bidez, deialdiaren oinarri hauen arabera.
- 1.5.- Prozesuak, gutxienez, % 33ko desgaitasun maila baloratuko du hala egiaztatutako izangaiengan.

BIGARRENA. IZANGAIEN BALDINTZAK

2.1- Eskatutako titulu akademikoa izateaz gain, titulua izapidetzeko eskubideak ordainduta ere izan beharko ditu.

Hautaprobetan onartzeko eta parte hartzeko, oinarri orokorretan adierazitako baldintzez gain, Komunikazio, Kazetaritza, Harreman Publiko, Marketin edo antzeko karreretako goi-mailako titulazioa eduki beharko dute izangaiek, edo, bestela, titulua lortzeko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte. Titulazioek MECES 3 maila egiaztatu beharko dute.

<https://www.universidades.gob.es/correspondencia-entre-titulos-universitarios-oficiales-pre-bolonia-y-niveles-meces/>

2.2.- Ez ditu izan behar kasuan kasuko eginkizunak egitearekin bateragarriak ez diren osasun arazoak. Horrela, jatorrizko lanpostuaren eginkizunekin bat ez badatoz, nahitaezkoa izango da osasun azterketa egitea.

2.3.- Komunikazio korporatiboko edo instituzionaleko, marketineko, publizitateko, harreman publikoetako edo antzeko roletan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua izatea.

2.4.- Ezagutzen fasean egiaztatuko da:

Tresna informatikoak erabili eta ezagutzen dituela, eta komunikazio digitaleko eta sare sozialetako tresnak eta plataformak ezagutzea. Hainbat tresna erabiltzen dakiela, hala nola e-mailing bezeroak, sare sozialak, Wordpress, Google Analytics, Looker Studio, etab.

Euskaraz eta gaztelaniaz idazteko trebetasun bikainak dituela.

Nahitaezkotzat ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

2.5.- Gutxienez 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea euskaraz (3. HE).

Euskarazko 3. hizkuntza eskakizunari (3. HE) dagokionez, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuko esteka honetan lor daitezke titulu homologatuak:

<https://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

2.6.- B motako gidabaimena dutela egiaztatu beharko du.

2.7.- Ez egotea inongo administrazio publikotako edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez berezita, ezta eginkizun publikoak betetzeko irmoki gaitasun gabetuta ere.

HIRUGARRENA. ESKAERAK

3.1. -Barne prozesuan parte hartu nahi dutenek hala jaso beharko dute 0 eranskin gisa atxikitako eskabidean. Hori, honela entregatu beharko da:

a) Posta elektronikoko helbidea: Indesaprocesoselectivo@araba.eus, honako hau adieraziz gaian: REF. INDESA TÉCNICO SUPERIOR COMUNICACIÓN.

b) Indesa 2010 SLren egoitza nagusia (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Gasteiz), 09:00etatik 14:00etara.

Ez dira hautaketa prozesuan onartuko eskatutako nahitaezko prestakuntza edo horren baliokidea egiaztatuta ez daukaten izangaiak. Eskaerarekin batera jatorrizko dokumentu hauek ere erantsi beharko dira nahitaez.

- Eskaera (0 eranskina)
- Eskaera aurkezten den egunean indarrean dagoen NANaren fotokopia.
- Bigarren oinarrian ezarritako titulua eta baldintzak egiaztatzea.
- Izangaiek deitutako plazarekin zerikusia duten lanpostuetan izandako esperientziaren egiaztatzea. Horrez gain, dokumentu hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dituzte:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Lan kontratuak.
- Hala badagokio, % 33 baino gehiagoko desgaitasuna aintzatetsita izatea.

Eskaera mezu elektronikoz bidaliz gero, hautaketa prozesuko lehenengo proba egin aurretik, 5 egun baliioduneko epea emango zaie onartutako pertsoneri aurretik adierazitako dokumentazioaren jatorrizko aleak aurkez ditzaten. Epe barruan eta zuzen egin ezean, hautagaitza ezetsiko da.

3.2.- Indesa 2010 SLren egoitza nagusian aurkeztuko dira eskaerak (Alaba Jeneralaren kalea, 10-5.a), goizez, 09:00etatik 14:00etara, 2025eko martxoaren 13tik martxoaren 25era, biak barne.

Posta elektronikoz bidaltzen diren izangai zerrendek, zuzenketetarako aurkeztutzat jo daitezke, gutxienez, eskaera, eskatutako titulazioa eta lan bizitza jaso beharko dituzte. Dokumentu horiek, gutxienez, sartzen ez badira, ez da ulertuko eskabidea aurkeztu denik.

3.3.- Hautaketa prozesua izapidetzen den bitartean, Hautaketa Organoak 5 egun baliioduneko epea irekiko du (behar bezala argitaratuko da) baloratzekoak diren merezimenduak alegatzeko eta

egiaztatzeko. Ordura arte egindako nahitaezko eta baztertzeko ariketak gainditu dituzten izangaiantzat bakarrik izango da. Merezimenduen dokumentuak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira; Indesa 2010 SL enpresaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak konpultsatuko ditu kopiak.

Izangai bakarra aurkezten bada, ez da merezimenduak alegatzeko eperik irekiko, eta ez dira baloratuko, efizientzia- eta efikazia-printzipioak aplikatuz.

3.4.-Hautaketa Organoak ezingo du inola ere baloratu merezimendurik, baldin eta ez badira egiaztatu behar bezala alegatu eta aurkezteko ezarritako epe barruan. Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

3.5.- Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta parte hartuz gero, datu pertsonalak tratatzeko, eta hala badagokio, proba psikoteknikoak, nortasun probak edo elkarrizketa egiteko baimena emango da.

Eskaera aurkeztean eskatzaileak berariaz adieraziko du ados dagoela datu pertsonalak tratatzearekin, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA. IZANGAIEN ONARPENA:

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda egingo du, eta hautaketa prozesuko parte hartzaileei eta Hautaketa Organoari jakinaraziko die. Parte hartzaileek bost egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, zuzen daitezkeen akatsak edo okerrak zuzentzeko.

4.2.- Aurreko atalean ezarritako alegazioen epe barruan zer izangai aurkeztu diren ikusi ahalko du enpresa batzordeak, eta hala badagokio, haietako zenbait onartzeko edo ez onartzeko alegazioak egin ahalko ditu.

4.3.- Erreklamazioetarako epea igarotakoan, izangaien behin-behineko zerrenda eta egindako erreklamazioak jakinaraziko dira, Hautaketa Organoak behin betiko onets edo ebatz dezan.

BOSGARRENA. HAUTAKETA ORGANOA.

5.1.- Deialdi honetarako hautaketa organo bat eratuko da. Hautaketa Organoko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaizkie.

5.2.- Hautaketa Organoak ariketak egiteko jasotako ordena aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, eskumena izango du ezartzeko ariketa bat baino gehiago egin dadila egun berean.

5.3.- Hautaketa Organoaren kideen izen zerrenda deialdiarekin batera argitaratuko da.

5.4.- Hautaketa Organoaren jarduketa baliozkoa izateko, boto eskubidea duten kideen gehiengo bertaratu beharko da, eta baita lehendakaria eta idazkaria ere. Erabakiak hartzeko, Hautaketa Organotik bertarutzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.5.- Hautaketa Organoak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren ordena egokia eta legezotasuna zainduko ditu. Era berean, sortzen diren zalantzak argitzeko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebatzeko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoaren edukia interpretatu ahalko du.

5.6.- Hautaketa Organoaren lehendakariak hartu beharreko neurriak hartuko ditu izangaien nortasunaren konfidentziasuna hautaketa prozesu osoan bermatzeko.

5.7.- Hautaketa Organoak kalifikaziorik handiena lortu duen izangaia hautatu eta proposatuko du lanposturako, eta berdinketa egonez gero, diskriminazio positiboko irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Berdinketa gertatzen bada, % 33ko baino gehiagoko desgaitasuna onartuta duten izangaiei emango zaie lehenetsuna lanposturako, eta haien artean, emakumeak lehenetsiko dira.
- b) Berdinketa gertatzen bada, eta ez badago berdinketarik gainditutako desgaituen artean, puntuaziorik handiena lortu duen emakumea lehenetsiko da; bestela, puntuaziorik handiena lortu duen izangaia.

5.8.- Nolanahi ere, 6 hilabeteko probaldia izango du lanpostuak. Probaldi horretan zehar izangaiek zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.9.- Hala ere, Zuzendaritza-Kudeatzaitzaren ustez hautatutako pertsonak ez badu gainditzen ezarritako probaldia, puntuaziorik handiena lortu duen gainditutako bigarren izangaiari esleitu ahalko zaio lanpostua. Ez badago, hirugarrenari, eta horrela hurrenez hurren.

5.10.- Probaldia atal hauek baloratuz ebaluatu eta kalifikatuko:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta moldatzeko gaitasuna.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Barneko eta kanpoko harremanak.

SEIGARRENA. PROBEN NONDIK NORAKOA.

6.1- Deialdi bakarra egingo da izangaiantzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NANarekin edo gidabaimenarekin joan beharko dira.

6.2.- Ariketak non eta noiz izango diren jakinaraziko zaie izangaiei.

6.3.- Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratzen direnean, automatikoki 3 egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4.- Hautaketa Organoak Indesa 2010 SL enpresatik kanpoko langileengana jo ahalko du zenbait ariketa baloratzeko eta egiteko.

ZAZPIGARRENA. KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1- Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 5., 01005 Gasteiz) eta Indesa 2010 SL enpresaren web orrian argitaratuko dira, eta hautaketa prozesuaren parte hartzaileei jakinaraziko zaie.

7.2.- Hiru (3) egun balioduneko epea irekiko da merezimendu eta ezagutza fasean lortutako kalifikazioen arabera, eta 5.7. oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatu eta gero, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko. Horrela, behin ebatzita eta banan-banan jakinarazita, hautatutako izangaiei behin betiko zerrenda argitaratuko da 5.7. oinarrian ezarritako moduan.

Halaber, aurkeztutako merezimenduak eta haien balorazioa bistaratu ahalko ditu enpresa batzordeak 7.2. oinarrian adierazitako epean, eta haien balorazioaren aurkako alegazioak aurkeztu.

Hautaketa Organoak egindako zerrendako izangaiek ez badute lanposturik lortzen deialdian eskainitakoan artean, arlo bakoitzaren arabera aldi baterako lan poltsa batean sartuko dira, eta zerrenda horretatik deitzean, ordena errespetatuko da.

7.3.- Indesa 2010 SL enpresak lan poltsatik kontratatuzko eskubidea izango du, beharren arabera, deitutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko, hautaketa prozesu hau amaitu eta hurrengo hiru urteetan gutxienez.

ZORTZIGARRENA. KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.

8.1.- Izangaien behin betiko kalifikazioaren ostean, hautaketa organoak Komunikazioko goi-mailako teknikari lanpostua behin betiko kontratatzeko proposamena helaraziko dio Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzari, deialdi honetan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren izenarekin. Bestalde, lan poltsa bat eratuko du lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

8.2.- Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzak deitutako plazari dagokion lan kontratua sinatzeko eskumena izango du.

8.3.- Hala ere, kontratua sinatutakoan, ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da Enpresako Zerbitzu Medikuek egindako osasun azterketa eta garatuko den lanposturako gaitasun adierazpena.

Osasun azterketa ez bada aldekoa, lanpostua lortu ez duen zerrendako hurrengo izangaia proposatuko dio Hautaketa Organoak Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza-Kudeatzaitzari, eta horrela hurrenez hurren.

BEDERATZIGARRENA. LAN BALDINTZAK.

Lanpostua eskuratzen duen pertsonak bete egin beharko ditu deialdi honetan eta Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29an onetsitako sozietatearen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian ezarritako lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak, betiere Indesa 2010 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Gasteiz, 2025eko martxoaren 12a

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea

OINARRI ESPEZIFIKOAK

SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA.

Merezimendu fasearen eta ezagutza fasearen bidez egingo da hautaketa.

A.- MEREZIMENDU FASEA.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena.

Merezimendu fasean, gehienez, 80 puntu emango dira, atal hauen arabera:

1. Indesan zein Indesatik kanpo deitutako plazen antzeko eginkizunak izan dituzten lanpostuetan egindako lana:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

Lanpostuan emandako hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da, hiru urteko esperientziatik aurrera zenbatuta; izan ere, ezinbesteko betekizuna da lortu nahi den lanpostuaren eginkizunen antzeko lanpostuetan.

- a. Indesa 2010etik kanpo egindako lana
Izangaiek deitutako lanpostuarekin loturiko lanpostuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:
 - Curriculum vitae.
 - Sinatutako lan kontratuak.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Deitutako lanpostuaren antzeko lana egiten den enpresen ziurtagiria.
- b. Indesa 2010en egindako lana. Ez da akreditaziorik behar. Esperientzia
Lanpostuan mailaz igoz gero aldi baterako, zenbaketa gehienez 6 hilabetera mugatuko da.

2. Prestakuntza akademiko gehigarria:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

- Marketin, publizitate edo komunikazioko graduondokoa: 20 puntu.

3. Ingeles ezagutzak:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

- 2. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 7 puntu.
- 3. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 10 puntu.

Ziurtagiri ofizialak aurkeztu behar dira, edo baliokideak badira hori jaso eta justifikatzen duen araudia.

4. Euskara ezagutza osagarriak:

Gehieneko puntuazioa: 13 puntu.

- 4. hizkuntza eskakizuna edo haren baliokideak: 13 puntu.

5. Informatika ezagutzak

Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.

Informazio Gizartearen Euskadi Planak KZGune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratzeko probak gainditzea merezimendu gisa baloratuko da. Hona hemen nola:

- Microsoft Word 2010 edo geroagoko oinarrikoa: 2 puntu
- Microsoft Excel 2010 edo geroagoko oinarrikoa: 3 puntu
- Outlook 2010 edo geroagokoa: 2 puntu

Izangai bakarria aurkezten bada, ez dira merezimenduak baloratuko.

B.- EZAGUTZA FASEA.

Oposizio aldiak, gehienez, 100 puntu izango ditu, atal hauen arabera:

1. Lehenengo ariketa. Idatzizko proba.

Nahitaezko eta baztertzeko proba izango da izangai guztientzat.

Test moduko eta/edo garatzeko galderen ariketa izango da, eta I. eranskinean jasotzen den gaitegian oinarrituko dira.

Ariketa honetan, gehienez, 60 puntu emango dira, eta gutxienez, 30 puntu lortu behar da gainditzeko.

2. Bigarren ariketa

Nahitaezko eta baztertzeko proba izango da izangai guztientzat.

Elkarrizketa pertsonala, proba psikoteknikoa edo nortasun proba izango da, deitutako lanpostuaren profilerara egokitzen den ala ez baloratzeko.

Ariketa honetan, gehienez, 40 puntu emango dira, eta 20 puntu beharko dira gainditzeko. Izangaiek arlo hauetan dituzten gaitasunak ebaluatuko dira:

- Ekimena.
- Antolatzeko gaitasuna.
- Pertsonen arteko trebetasunak eta negoziatzekoak, barneko eta kanpoko stakeholderekin harremanak kudeatzeko.
- Komunikazio trebetasunak.
- Pentsamolde estrategikoa, metrikak interpretatzeko eta txostenak sortzeko gaitasun analitikoa duena.
- Taldeak gidatzeko eta hainbat proiektu aldi berean kudeatzeko gaitasuna.

0 ERANSKINA - ESKAERA

Probetan izena emateko eskaera:

INDESA 2010 SLko ZUZENDARITZA-KUDEATZAILETZARENTZAT

IZEN-ABIZENAK:

IFZ:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

Lehenengoa: Komunikazioko goi-mailako teknikari lanpostua betetzeko kanpoko deialdian izena eman nahi dut.

Honekin batera, agiri hauek aurkezten ditut:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bigarrena.- Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko beharrezkoa bada deialdi honen helburua betetzeko.

Gasteiz, 2025eko _____ aren _____ (a).

Izangaiaren sinadura:

I. ERANSKINA - GAITEGIA.

Ezagutza orokorrak

- Indesa 2010 SLren indarreko hitzarmen kolektiboa (ALHAO, 133. zk., 2024ko azaroaren 22koa). 1., 2., 26., 29., 30., 31., 36., 37., 38. eta 43. artikulua.
- Indesa 2010 SL sozietatearen xedea.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena. 1., 3., 6., 7., 12., 35., 36., 37., 38., 43., 44., 45. eta 46. artikulua.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 1. artikulutik 24. artikulura, biak barne.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koa. 12. artikulutik 24. artikulura, biak barne. 74. artikulutik 95. artikulura, biak barne. 118. artikulua. 156. artikulutik 159. artikulura, biak barne.
- Lege araudia eta lan eskubideak: enpleguarekin eta langileek laneko arriskuen aurrean dituzten eskubide eta betebeharrekin lotuta indarrean dagoen legeria ulertzea.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 4., 5., 12., 14., 18., 19., 20., 41., 43., 44., 54. eta 58. artikulua.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. 3. art.
- Datu pertsonalen babeserako oinarriko alderdiak: kontzeptuak, printzipioak eta eskubideak; batez ere, informazio eskubidea datu bilketan, konfidentzialtasun eginbeharra eta datuen komunikazioa.

Ezagutza espezifikoak.

- "Fundamentos del marketing". Philip Kotler. Editorial Pearson.
 - "Comunicación estratégica en la empresa". José Daniel Barquero Cabrero. ESIC Editorial
 - "Dirección de comunicación: Las claves para gestionar la comunicación en organizaciones complejas". Joan Costa. Editorial Paidós.
 - "Manual de comunicación corporativa e institucional". Jordi Xifra. Editorial UOC
 - "Branding Corporativo: Fundamentos para la gestión estratégica de la marca corporativa". Justo Villafañe. Editorial Pirámide.
 - "Gestión de marcas y comunicación corporativa". Carmen Martín-Sanz. ESIC Editorial.
 - "El Gran Libro del Branding". Iván Díaz.
 - "El Arte de Medir: Manual de analítica web". Gemma Muñoz. Editorial Gestión 2000.
 - "Marketing y métricas clave: Medición del éxito en la comunicación corporativa". Paul W. Farris.
 - "KPIs: Cómo medir el éxito de tu estrategia digital". Ricardo Tayar.
 - "Marketing Digital 360". Manuel Alonso Coto. ESIC Editorial.
 - "Marketing de Contenidos: Estrategia, creación y medición". Eva Sanagustín.
- Argitaletxea: Anaya Multimedia.
- Lanpostuen balorazioan zerrendatzen diren lanpostuaren funtzioak, goi-mailako teknikariak (hitzarmenaren eranskin gisa agertzen dira) eta oinarri hauen III. eranskinean zerrendatzen diren eginkizunak.

DOAKO BALIABIDEAK LINEAN

Google Analytics

<https://support.google.com/analytics/answer/15068052#zippy=.get-startedusing-google-analytics-introduction,go-further-with-advanced-features-in-google-analyticsadvanced,answer-business-questions-with-google-analytics-intermediate,use-google-analyticsfor-your-business-beginner>

- **Think with Google.**

<https://www.thinkwithgoogle.com/intl/es-es/>

- **Google Digital Garage.**

https://crece.withgoogle.com/intl/es_mx/certificates

Googleren doako plataforma, marketin digitalari, e-commerceri, datuen analisari eta askoz gehiagori buruzko ikastaroak eskaintzen dituena gaztelaniaz.

- **Meta Blue Print.**

<https://www.facebook.com/business/learn>

Doako ikastaroak eskaintzen ditu Facebooken, Instagramen eta WhatsAppen publizitate kanpainak sortzen eta kudeatzen ikasteko.

- **Hubspot Academy:**

<https://academy.hubspot.com/>

Doako prestakuntza plataforma, inbound marketinari, marketinaren automatizazioari, SEOri eta edukien marketinari buruzko ikastaroak eskaintzen dituena.

II. ERANSKINA - HAUTAKETA ORGANOA.

Lehendakaria: Indesa 2010 SL enpresako Giza Baliabide eta Orientazioko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Indesa 2010 SL enpresaren finantza zuzendaritza, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Laguntza Unitateko goi-mailako teknikaria

Idazkaria: Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza Juridikoko teknikaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

III. ERANSKINA - LANPOSTUAREN LANTOKIA, BETEKIZUNAK ETA EGINKIZUNAK.

LANPOSTUA: Bulego Zentralei atxikitako komunikazioko goi-mailako teknikaria.

LANTOKIA: Indesa 2010 SL enpresaren bulego nagusiak.

SOLDATA: Lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Ekimena, antolatzeko gaitasuna, talde lanerako bokazioa eta komunikazio trebetasunak dituen pertsona Komunikazioko goi-mailako teknikari lanposturako.

ESKATZEN DEN NAHITAEZKO TITULAZIOA:

Goi-mailako gradua Komunikazioan, Kazetaritzan, Harreman Publikoetan, Marketinean edo antzeko karreretan.

NAHITAEZKO LAN ESPERIENTZIA.

Komunikazio korporatiboko edo instituzionaleko, marketineko, publizitateko, harreman publikoetako edo antzeko roletan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua izatea.

NAHITAEZKO PRESTAKUNTZA OSAGARRIA:

- Ofimatika tresnen erabiltzaile maila (Office, Word, Excel).
- Gutxienez 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta euskaraz (3. HE).
- Tresna informatikoak erabili eta ezagutzen dituela, eta komunikazio digitaleko eta sare sozialetako tresnak eta plataformak ezagutzea. Hainbat tresna erabiltzen dakiela, hala nola e-mailing bezeroak, sare sozialak, Wordpress, Google Analytics, Looker Studio, etab.

EGINKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Eginkizun orokorrak:

Indesaren web orriari argitaratutako LZBaren arabera (esteka):

<https://www.indesa2010.eus/wp-content/uploads/2018/01/O.D.1.MEMORIA-VALORACION.pdf>

Eginkizun bereziak:

- **Komunikazio estrategia garatzea:** Indesak Arabako gizartean, oro har, eta interes talde nagusien artean, bereziki, duen nabaritasun- eta ezagutza-maila handitzeko zuzendaritzak diseinatutako komunikazio estrategia globala gauzatzea. Gainera, jarduteko bide berriak eta estrategia horren hobekuntzak proposatuko ditu.
- **Komunikabideekiko harremana kudeatzea:** Hautatutako pertsonak kudeatuko du, Arabako Foru Aldundiko Komunikazio Zuzendaritzaren ikuskaritzapean, enpresak komunikabideekin duen harremana. Horretarako, Indesaren mugari komunikatibo eta albiste nagusiak identifikatu beharko ditu, eta prentsa oharrak egin edo elkarrizketak kudeatu.

- **Barneko komunikazioa:** Erakundearen barne komunikazioa kudeatzea, maila, arlo eta sail guztietako langileen arteko komunikazio operatibo eta emozionaleko helburuak betetzen direla bermatuz.
- **Krisi jakinarazpena:** Krisiak jakinarazteko planak diseinatzea eta gauzatzea, enpresaren izen onari eragin diezaioketen egoerei azkar eta koherentziaz erantzungo zaiela ziurtatuz.
- **Branding-a:** Hautatutako pertsona arduratuko da markaren komunikazio ekintza guztiak integratzeaz, horiek marka eraikitzeke prozesuari ekarpena egin diezaioten, eta, horrela, nahi den posizionamenduari eta Indesaren balioekin lerrotatuko da. Era berean, markaren kontaktu puntu eta euskarri guztietan markaren identitate eskuliburua behar bezala erabiltzen dela gainbegiratzeaz arduratuko da.
- **Edukiak sortzea:** Edukiak sortzea ingurune digitaletan (webgune, sare sozialak), argitalpenetan, ekitaldietan, barne komunikazioko ekintzetan...
- **Hornitzaileen kudeaketa:** Zenbait hornitzaile koordinatu beharko ditu (diseinu azterlanak, teknologia hornitzaileak, publizitate agentziak, hedabide zentralak, inprimategiak...), komunikazio arloko zeregin guztiak gauzatzeko.
- **Merkataritza lanetan laguntzea.** Horren barruan sartzen da enpresa ordezkatzeko merkataritza ekintzetan, foroetan, ekitaldietan eta abarretan, bai eta enpresako zuzendaritzari argudioak eta beharrezko materialak ematea ere, enpresaren merkataritza zereginak behar bezala gauzatzeko.
- **Berrikuntza eta joerak:** Komunikazioaren, marketin digitalaren eta teknologiaren arloko joeren berri izatea, enpresa bere estrategietan abangoardian dagoela ziurtatzeko.
- **Emaitzen monitorizazioa:** Komunikazio estrategien inpaktua aztertzea eta jakinaraztea metriken eta KPIen bidez, eta, horretarako, komunikazioaren arloko ekintzen emaitzak jakinarazteko beharrezkoak diren tresnak eta aginte taulak erabiltzea.